

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 730/2019 Erabakia, azaroaren 12koa. Onestea Bilarreko Udalarekin 338 zenbakiko partzuergoa eratzea, bai eta partzuergoaren azalera basoa leheneratzeko proiektua ere

Mendi Zerbitzuak jakinarazi du Bilarko udalerrian baso leheneratzeko hainbat jardun egin direla azken hamarkadetan. Zehazki, udalerriko iparraldean, Unea dermioan, atsedengunearen mendi-magal mugakideen basoberritzea egin zen 80ko urteen amaieran. 2010. urtean zehar hasi ziren berriro Bilarko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuaren arteko harremanak, udalaren lursail batzuk basoberritzeko aukera zehazteko. Horrela, 2011n 7 ha inguru basoberritu ziren udalerriko hego-mendebaldean. 2018ko apirilaren 9ko data daraman agirian, Bilarko Udalak eskatu zion Mendi Zerbitzuari udalaren jabetzako hainbat lursail basoberritzea partzuergoan. Alde horretan hainbat bisitaldi egin ondoren eta gure irizpide teknikoak udal arduradunenekin egiaztatuz, basoberritze proposamena idatzi zen.

Behin proposamena idatzi ondoren, 7,35 hektareako azalera basoberrituko da, eta lanen gauzate materialaren aurrekontua 19.644,58 euro da.

Lur horien degradazio egoerak, zeina berdina baita bestalde Arabako Errioxako udalerritik askotan, erabat justifikatzen du lehengoratzeko xede nabarmena daukaten basoberritze lan horiek egin beharra.

Lanak gauzatzeko aurrekontu zenbatetsia kontuan izanik, kontratu txiki bezala izapidetu behar da, 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuena, 118.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Obra kontratu txikia denez, obren aurrekontua sartu da, halaxe ezartzen baitu Sektore Publikoko Kontratuena 9/2017 Legeak 118.2 artikuluan. Proiektuaren beharrari dagokionez, obren izaera, ezaugarriak eta garrantzia ikusita, ez da beharrezkoa.

Kostuak apaltzeko printzipioari men eginez, jardun guztien aurrekontua eskatu zaie enpresa hauei: LAM Medioambiente SL eta ECOSIL, Estudios y Contratas Silvícolas, SL enpresei, eta haiek bi eskaintza hauek aurkeztu dituzte (BEZa aparte):

LAM Medioambiente SLk	19.644,58 euro
ECOSIL, Estudios y Contratas Silvícolas SLk	1.865,72 euro

Aurkeztutako eskaintzak aztertuta, proposatzen da obrak LAM Medioambiente SL enpresari esleitzea, berme nahikorekin gauzatu ditzakeela jotzen baita, 21.609,04 euroko zenbatekoan, BEZa barne (ehuneko 10). Zenbateko hori behar bezala egindako fakturak aurkeztu ostean ordainduko da, Arabako Foru Aldundiaren 2019ko gastuen aurrekontuko 40106.4500.6190103 "Erretako eta andeatutako eremuak lehengoratzeko" partidaren kontura.

Sektore Publikoko Kontratuena 9/2017 Legeak 118.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, espediente honetan ez da aldatu kontratuaren xedea kontrataziorako arau orokorrak aplikatzea saihesteko, eta Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoaren bidez egiaztatuta da kontratistak, 2019ko urtarrilaren 1az geroztik, ez duela Nekazaritza Sailarekin izenpetu banaka zein batera 40.000,00 euro gaingiditen duen bestelako kontratu txirikirik.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren eta Bilarko Udalaren arteko 338 zenbakiko partzuergoa eratzea, Bilarko 3 poligonoko 1023, 1041, 1118 eta 1181 katastro lurzatiaren zati bat sartuz, guztira 9,19 hektareako azalerarekin (1023 lurzatiaren 4,30 ha, 1041 lurzatiaren 0,21 ha, 1118 lurzatiaren 1,29 ha eta 1181 lurzatiaren 3,39 ha), baso leheneratze proposamenean jasotzen den bezala.

Bigarrena. Proposatutako partzuergoa arautuko duten klausulak:

a) Udalak bere gain hartzen du goian aipatu diren lursailak lagatzea Arabako Foru Aldundiak egingo duen basoberritzea gauzatzeko, mendia bere oneratzeko asmoz.

b) Arabako Foru Aldundiak, berriz, bere gain hartuko du basoa sartzeko lanek eta azalera landatuak mantentzeak eragindako kostu osoa.

c) Partzuergoak 80 urte iraungo du, jatorrizko partzuergoa eratzeko erabakia hartu zenetik aurrera.

d) Landaketen aprobetxamendutik lor litezkeen onurak erdi bana egingo dira partzuergoko bi kideen artean.

Hirugarrena. Onestea Bilarko Udalaren mendietan, Arabako Foru Aldundiarekiko partzuergoan, basoberritze lanak egiteko kontratua egitea, kontratu txikien prozeduraren bidez, 19.644,58 euroko aurrekontuarekin, BEZa aparte (19.644,58 euro gehi % 10eko BEZari dagozkion 1.964,46 euro, guztira 21.609,04 euro), eta gauzatzeko hilabeteko epearekin, eta betiere 2019ko abenduaren 31 baino lehen, eta, era berean, LAM Medioambiente SL enpresari (IFZ: B1568922) adjudikatzea Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontu 2019ra luzatuaren Gastuen Aurrekontuko 40.1.06.45.00.619.01.03 "Erretako eta andeatutako eremuak lehengoratzea" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 19.5.19.105.5036/000).

Laugarrena. - Foru administrazioko fakturen kontabilitate erregistroa sortu eta hori izapidetzeko prozedura onesten duen Abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuak xedatutakoa betez, esleipendunak dagozkion faktura elektronikoak aurkeztu beharko ditu araututako eran.

Bosgarrena. Obren zenbatekoa ordaintzeko, aurrez behar bezala egindako faktura aurkeztu beharko da, aurreko xedapen zatian ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 12a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE